

Hernanik kronika

TOKIKOM

2013ko abenduaren 21a, larunbata::: 4.591 zk. ::: www.kronika.net

UDAL AURREKONTUAK

Diru gehiago izango du Udalak
2014an gastatzeko /4-5



❖ DBRAK - Karabeleko urbanizazio berria

Karabelen etxea botako dute, goizean

Erriorearen ondoko bigarren etxea botako dute gaur goizean eta Portu eta Karabel bitarteko bidea itxita egongo da, 09:00etatik 12:00etara.

KARABELEKO zubiaren ondoko bigarren etxea bihar goizean botako dute, eta Portu eta Karabel arteko bidea itxita egongo da goizeko 09:00etatik 12:00etara. Karabeleko urbanizazio proiektua dela eta zubia eta zubi ondoko hiru etxeak botako dituzte. Bat bota zuten, eta bihar botako dute bigarrena. Eguzki Alde baserria aurrerago botako dute, eta Karabelgo zubia botatzeko oraindik sei bat hilabete pasako dira, Kronikak jakin ahal izan duenez. ||

◆ ERRUGBIA

Bigarren itzuliko lehenengo partidua, gaur Landaren

Benetan partidua interesgarria jokatuko dute gaur Hernanik eta VRAC taldeak, bigarren itzuliko lehenengo partiduan, 16:00etan, Landaren. Deialdi berezia egin die errugbizaleei, taldea animatzera azaldu daitezten. /6

❖ BERRIAK-KRONIKA

Gabonetako saskiak, zozketatuta

Beriak eta Hernaniko Kronikak elkarlanean Gabonetako lau saski zozketatu zituzten atzo. Zenbaki sarituak dira: 3.276, 2.407, 1.584 eta 1.613. /3

❖ PSE-EE

Opariak jasotzen, umeei emateko

Gabonetan umeei banatzeko opariak biltzen ari da alderdi sozialista, Gurutze Gorriaren bitartez. Hernanin Casa del Pueblon ari dira biltzen, urtarilaren 2ra bitartean. /2

GAUR KRONIKAN

Laburrak /2

Jasota Bezala:
Zilegi Eskolak /3

Saskibaloiak
Ekintzak, Gabonetan /6

Kirolak: pelota, atletismoa, eskubaloia... /7

Gabonetako kontzertuak /8

Zinea /8



Kirol Sariak Larburu, Garin, Lopez eta Alfarorentzat

ATZO banatu ziren Hernaniko Kirol Sariak, hernaniarren kirol ibilbidea saritzeko asmotan. Hauexek izan ziren saria jaso zutenak: Hernani Saria bik jaso zuten: Miguel Angel Garin eta Batis Larburuk; Emakumezko Kirolariaren Saria Esther Lopezek; Gizonezkoarena Peru Alfarok; eta Babes Saria AMR Refractarios enpresarentzat. ||

biokbi optika
Antziola, 14 - Tel.: 943 33 68 86

ESKAINTZA
%20 BEHERAPENA MONTURA GUZTIAN

ZATOZ ETA AUKERA EZAZU GUSTUKOENA

ESKAINTZA BEREZIA
Kristal antirreflejanetun betaurreko osas eginez
(Azaroaren 14tik Abenduaren 14ra)

biokbi optika
R.P.S. 17406

Alejandra Alcibar
Optiko-Optomelista, 12.244 zka

PHOTODESKULTURA - ELEKTROPORAZIOA - AURPEGI ETA GORPUTZA
SPA TRATAMENDUA - AURPEGI ETA GORPUTZA
ESMALTEZTATU IRAUNKORRA - MIKROPIGMENTAZIOA
RADIO-FREKUENTZIA
MONOPOLARRA, KUATRIPOLOARRA ETA MIKROPOLOARRA
HPL - ANTHELIA (PREZIOAK KONTSULTATU)
PROBAK KONPROMEZURIK GABE

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON

Yolanda
Estreko Zentrua - Centro de Estética
ATZIETA 2 BEHEA ATZEALDEA 943 55 32 78

WWW.CENTRODEESTETICAYOLANDA.COM

Santo Tomas Eguna gaur, herriko hainbat txokotan

Lizeagan, Orkolagan, Sagastialden, Goiz Eguzkin, Gazte Txokoan... antolatu dute festa. Urnietan ere, ospatuko dute eguna, arratsaldez.

SANTO Tomas Eguna da gaur eta herriko hainbat txokotan festa antolatu dute. Egunak merezi duen bezala, txistorrarik ez da faltako.

Txistorra postua gaur, eta Olentzero lehiaketa bihar, Lizeagan

Lizeagako Gibelalde auzo elkarteak postua jarriko du 18:30etatik 21:00etara. Txistorra jateko aukera ederra izango da Victor Hugo kaleko 4garren zenbakiaren plazoletan.

Bestalde, bihar, Olentzero-panpinen lehiaketa izango da. Maketak 12:00ak baino lehen utzi behar dira elkartearen egoitzan (Larremendi 11, behe). Ondoren, erakusketan jarriko dira 12:00etatik 13:00etara.

Egun osoko festa, Orkolagan

Anboto tabernak ere eguna ospatzeko jaia antolatu du Orkolagan. 12:00etatik aurrera haur jolasak izango dira, Toka Txapelketa, sokatira eta txingak. Sagardo eta txistorra probaketa ere izango da gerturatzen den guztiarentzat. Ondoren, bazkaria eta Gabonetako Mus Txapelketa berezia antolatu dute. 16:00etan izango da hori. Eta eguna



Iluntzean egingo dute txistorrada, Lizeaga auzoan.

bukatzeko, kontzertuak: Vomitto, Krisis eta No Hope.

Sagastialden, Goiz Eguzkin, Gazte Txokoan eta Goiz Argin

Goiz Eguzkiko kideek urtero bezala ospatuko dute Santo Tomas Eguna. 11:00etatik aurrera, txistor jatea izango dute eta udazkeneko karta joko eta herri jolasetako sari banaketa ere bai.

Sagastialde elkarteak 19:00etan egingo du txistor jatea eta bere bazkide eta lagun guztiak gonbidatzen ditu bertara azaltzeko. Eta herri osoari

jai zoriontsuak opa dizkio.

Gazte Txokoan, berriz, gaztetxoentzako izango da txistorrada.

Eta Goiz Argi tabernan ere txistorra pintxoak banatuko dituzte 19:00etatik aurrera, tragoaren truke. Horrez gain, trikitilariak taberna eta kalea girotuko dute. Arratsalde eta gau partean, gainera, euskal musika jarriko dute.

'Libre' zapi naranjak janzteko deia

Libre dinamikaren barruan, herritarrei dei egiten diete zapi naranjarekin ibiltzeko Gabonetan. Eta gaur, Garin kanpoan, txistorraz gain, zapiak egongo dira salgai.

Urnietan, sagar tarta lehiaketa

Urnietan arratsaldeko festa antolatu dute eta besteak beste, sagar tarta lehiaketa. Parte hartzea irekia da eta tartak 16:00etatik 19:00etara aurkeztu behar dira udaletxeko arkupean. Parte hartzaile bakoitzak txanpain botila bana jasoko du eta sariak izango dira aurreneko bi sailkatuentzat. Eta 18:00etatik aurrera izango dira: txistor jatea, gaztain erre-ak, taloak, sagardo txapelketa, saskiaren zozketa... ||

PSE-EE - PRENTSA OHARRA

Sozialistek bat egin dute umeentzako opari bilketarekin

Gipuzkoako Gazte Sozialistak ari dira kanpainarekin. Gurutze Gorriak jasoko ditu opariak, ondoren umei emateko. Urtarrilaren 2ra bitarte bilduko dira opariak, Casa del Pueblon. Bihar, berriz, festa antolatu dute.

HERNANIKO sozialistek bat egitea erabaki dute Gipuzkoako Gazte Sozialistek martxan jarri duten kanpainarekin: *Oparitu irribarre bat*. Umeentzako opariak biltzen ari dira. Gurutze Gorriak jasoko ditu herritarrek emandako opari horiek eta ondoren, behar gehien duten umeen artean banatuko dituzte.

Bilketa astelehenean hasi zen eta urtarrilaren 2ra arte luzatuko da. Ekimen hau lagundu nahi duten herritar guztiak Hernaniko Casa del Pueblora eraman ditzakete

Edozein motatako opariak izan daitezke, baina batez ere, jostailuak izatea komeni dela azaldu dute.

opariak. Edozein motatako opariak izan daitezke, baina batez ere, jostailuak izatea komeni dela azaldu dute.

Urtea agurtu eta berriari ongi etorria egiteko festa, bihar

Urteroko festa antolatu dute bihar Hernaniko sozialistek. Eguerdiko 12:00etan hasiko da eta luntx batekin bukatuko da. 2013 urtea agurtuko dute festa giroan eta 2014ari ongi etorria egin. Sozialisten egoitzan izango da (Elkano 11, behe) eta hernaniar guztiak ezarriko dituzte gonbitea.

Bide batez, Gabon zoriontsuak eta 2014 urte zoriontsua opa dizkiete herritar guztiak: «Zorionak eta urte berri on». ||

SAHARAKO JANARI BILKETA

Supermerkatu aurrean janaria biltzen, gaur

Saharako errefuxiatu kanpamenduetarako janaria biltzen ariko dira gaur, supermerkatu aurrean. Boluntarioak behar dituzte horretarako, eta zita egin dute, 09:30etan, Plaza Berrin. ||

ETXERAT

Materiala eta errifak salgai, bihar

Hernaniko preso eta iheslarien senideek materiala eta errifak salgai jarriko dituzte bihar eguerdian, 12:00etan, Kixkal aurrean. ||

GIBELALDE

Olentzero-panpinen txapelketa, gaur

Lizeagako Gibelalde auzo elkarteak antolatu du olentzero-panpin lehiaketa, eta gaur egingo dute. Goizeko 12:00ak arte dago epea olentzero entregatzeko. 12:00etatik 13:00etara erakusketan egongo da, eta ondoren sari banaketa. Saria emateko kontuan hartuko da sormenik haundiena zeinek ibili duen, eta material berziklagarriarekin egindako panpina izatea. ||

GAZTE TXOKOA

Ginkana ostegunean, eta apuntatzeko epea zabalik

Gazte Txokoak antolatuta ginkana egingo dute ostegunean, 10:30etatik aurrera, Hernanin zehar. Bost pertsonako taldeetan egin beharko dute ginkana, eta aurrez apuntatu behar da horretarako, Gazte Txokoan bertan. Apuntatzeko epea zabalik dago. ||

OSIÑAGA - XXI. MUS TXAPELKETA AZKARRA

Txapelak eta bi txerrikume jokoan, bihar, Osiñagako mus txapelketa azkarrean

Otsuenea sagardotegian jokatu dute aurten Osiñagako mus txapelketa azkarra. Bihar izango da, arratsaldeko 16:00etatik aurrera. Otsuenean bertan apuntatu beharko da momentuan, eta bikoteko 20 euro ordainduta. 1go saria: txapelak eta bi txerrikume. ||

INUDE ETA ARTZAIK

Ikasle ohiak inude eta artzaietan

Datorren urteko inude eta artzaien festan, Urumea ikastolako ikasle ohiak aterako dira. Aurrez eman behar da izena, telefono hauetakoren batean: 685 727 387 edo 688 660 707. ||

GOIZUETA

Añarbeko basoari buruzko erakusketa, gaur arte ikusgai, udaletxeko ganbaran

Erakusketa jarria dago udaletxeko ganbaran, Añarbeko basoari buruzkoa. Añarbeko ura, basoa, fauna, espezieak... natur aberastasuna ikusteko aukera ederra izango du, 17:00etatik 19:30etara ganbarara inguratzen denak. Gaur du azken eguna. ||



BERRIAK ETA HERNANIKO KRONIKA - GABONETAKO ZOZKETA

Lau saskien zenbaki sarituak: 3.276, 2.407, 1.584 eta 1.613

Irabazleek astebeteko epea dute errifa sarituak aurkezteko. Saskiren bat banatu gabe geratuko balitz, astebete barru zozketatuko litzateke berriz; beraz, ez bota errifak.

GABONETAKO lau saski zozketatu zituzten atzo eguerdian Berriak eta Hernaniko Kronikak. Opari ederrez betetako saskiak dira lauak, Berriak elkarteko merkatari eta ostalariak jarriak guztiak. Lau saskien zenbaki sarituak hauek dira: 3.276, 2.407, 1.584 eta 1.613.

Igo saskia: 3.276 zenbakia, Lizeaga kaleko Dorrnsoron saldua
Dorrnsoro okindegian saldu zen aurreneko saskiko errifa saritua: 3.276a. Saski ederra hamabost sarik osatzen dute: iberiko sorta, bost litro olio, erregetako roscoa, emakumezkoen aterkia eta kartera, Arnegui Magnum kaja, kristalezko fruteroa, Viña Real ardo kaja, marisko saskia, lepoko bat, kartera, turroi sorta, ile sekadorea, eguzkitako betaurrekoak eta etxeko zapatilak.

Bigarren saskiko errifa saritua, Irigoienek saldua: 2.407
Ez da aurreneko aldia Irigoien zapata dendak zortea banatzen duela. Bertan saldua da bigarren saskiko errifa saritua: 2.407 zenbakia. Sariak deskonektatu eta deskantsatzeko ezin hobeak: Suanceseko Posada Santa Anan bi gau, pentsio erdian, bi pertsonentzat, maleta bat eta nezaser bat.

Dorrnsoron ere, hirugarren saskiko errifa: 1.584a
Bi saskitako errifak saldu ditu aurten



Biterin egin zen zozketa, atzo eguerdian.

Lizeaga kaleko Dorrnsoro okindegiak. Hirugarren saskiko zenbaki saritua 1.584a izan zen. Irabazleak jasoko ditu: jabo kaja bat, erregetako roscoa, 2kg langostino, gazteentzako motxila eta estutxea, kristalezko fruteroa, 2 pertsonentzako otordua, jertse bat, mahai jokoa, aurpegi garbiketa, puzzle bat, lepoko bat, labana sorta, maletin bat eta mediana bat.

Laugarren saskikoa, Conde kioskoak saldua: 1.613 zenbakia
Condek ere, ez du estreinekoz banatuko Berriak-Kronikako saski bat. Aurten beraiek saldu dute laugarren saskiko errifa saritua: 1.613a. Saskia:

erregetako roscoa, kristalezko ordu-laria, iberiko sorta, aurpegi garbiketa, Wou kotxea, eskularruak, kafe katilu sorta, agenda bat, mahai jokoa, ganba kaja eta zazpi pulgadako tableta.

Errifak gorde, badaezbada
Irabazleek astebeteko epea dute errifa saritua aurkezteko. Saskiren bat banatuko ez balitz, bigarren zozketa abenduaren 27an egingo litzateke. Eta berriz ere, baten bat banatu gabe geratuko balitz, urtarrilaren 3tik aurrera azken zozketa bat egingo litzateke, Kronikan entregatzen diren errifa guztien artean. II

➤ Jasota Bezala

Zilegi Eskola: Hartu eta eman
Bada Hernanin ZILEGI ESKOLA izeneko ekimen bat. Zuetako askok aski ezaguna duzue; beste batzuek, ordea, izena besterik ez.

Bakoitzari interesatzen zaiona, euskaraz eta modu dinamikoan jasotzeko eta emateko lekua da ZILEGI ESKOLA.

Herritarren interesetatik abiatuz, hainbat gai lantzeko aukera ematen dugu eta ematen jarraitu nahi dugu. Izan ere, herrian bertan zer esana eta zer erakutsia duen asko zaudete, baita hori guztia jasoko luketenak ere. Hori dela eta, herriaren parte den egitasmo honetara gonbidatu nahi zaitugu, emaile nahiz hartzaile, euskara ikasle zein euskaldun oso. Euskaraz bizi nahi baduzu eta zer esan edo zer erakutsi baduzu, gurekin kontaktuan jarri besterik ez duzu. Proposamenak entzuteko edota aztertze irrikaz gaude.

Hauek izan dira azarotik abendura eskaini ditugun saioak:

- Bizilagun programaren aurkezpena
- Euskal kantagintza berriaren historia laburra
- Palindromo tailerra
- Energia berriztagarriak
- Nekazaritza ekologikoa
- Euskal Herriko historia txanponen bidez
- Mendiko orientazioa
- Harrera familia

Eta hauek, urtarriletik aurrera aurreikusten ditugunak:

- Txakurren heziketa
- Euskal Memoria fundazioa
- Barreterapia
- Eskulanak
- Txakolin dastaketa
- Diaporamak
- Pasta ekologikoa
- Kutsadura elektrikoa
- Xakea
- Harriak eta energia
- Emakume indigenak

ZILEGI ESKOLA zain duzu. Proposamen zein iradokizunik baduzu, edota saio hauetan parte hartu nahi baduzu, gurekin harremanetan jarri besterik ez duzu. zilegieskola@nek.org edo 607 59 28 64

Amagoia Etxeberria Irizar
Maite Villasante Gomez
Zilegi Eskoletako arduradunak

Itur mendi

Promozio berria.
Naturatik oso hurbil, Sagastiyan.



Lehen 10 etxebizitzak salgai.
Kalitate bikaina. 2 eta 3 gela, terrazak Helgoaldera begira.

943 42 95 21
INFORMAZIOA ETA SALMENTA: www.etxeonenak.com

etxe onenak URKILLA S.L.

2014KO UDAL AURREKONTUA: 30.813.312 EURO

Igogailu berria Kiroldegitik Urbietara, datorren urteko proiektuetako bat

Astearteko Plenoan 2014ko Udal aurrekontuak onartu ziren. Udalak 30.813.312 euro izango ditu datorren urtean, %2,3 gehiago. Igogailuz gain, honako proiektuak ditu Udalak datorren urterako: Buruntzaldean entitate juridiko bat sor-

tzea garapen sozioekonomikorako, trafikoa hobetzea Antziolan, Karabelgo zubia eta lezoia egitea, auzoak indartzea, gaztedia, parekidetasuna eta aniztasuna bultzatzea... Horrez gain, partida berri bat izango da presoen senideentzat.

HERNANIKO Udalak 30.813.312 euroko aurrekontua izango du datorren urtean, aurten baino 713.829 euro gehiago. Udalak diru gehiago izango du 2014an, diru sarrera gehiago izango duelako Fondo Foraletik. Foru Aldundiaren aurreikuspenen arabera, 10.940.000 euro izango ditu Hernanik, hau da, %7,4ko igoera aurreikusten dute. Dena dela, urte bukaeran aldaketak egon litezke, adibidez aurtengorako, aurreikusten zena baino %2,20 gutxiago izango dela jakinarazi du Diputazioak. Honekin lotuta, EAJ-PNVk datuekin egindako interpretazioa ez dela zuzena diote Luis Intxauspe alkateak eta Aitor Miner zinegotziak. Eta Diputazioak kopuru hori aurreikusten badu ere, 210.000 euro gutxiago jaso du Udalak aurrekontuetan, badaezpada, «urtero gutxiago izaten delako». Bestalde, gastuetarako, 200.000 euroko partida bat gorde du.

Horrez gain, hirigintza arloko proiektu batzuekin lotuta, beste bi diru sarrera garrantzitsu ere izango dira: Abiadura Haundiko Trenaren desjabetzeengatik (460.000 eurotik zati haundi bat) eta Karabelgo obragatik (617.000 eurotik zati haundi bat).

Horiek dira igoera eragin duten diru sarrera nagusiak, zerga eta tasek, berriz, ez dute eraginik izango. Hala azaldu du Minerrek: «Udalak ez du gehiago bilduko zergetatik, igoera KPIaren (IPC) arabera izan baita, %0,6».

Langabetuentzako zerbitzuak berritu

Ildo batzuk jarraituz banatuko du dirua Udalak eta indartu nahi dituen proiektuen artean dago, Buruntzaldean entitate juridiko bat sortzea, tokiko garapen ekonomiko eta sozialerako (120.000 euro). «Prozesu bat dago martxan eskualdean eta jarraipena emango



Igogailu berriak Kiroldegia, igerilekuen aldetik, eta Urbietara kalea lotuko ditu.

diogu. Horrekin lotuta, Hernani mailan, enplegu gunea berrantolatuko dugu eta langabetuei zuzentzen zaizkien zerbitzuak berritu eta hobetuko ditugu», azaldu du Luis Intxauspe alkateak.

Horrez gain, nabarmendu du Bic Berrilan enpresarekin elkarlanean ari direla. «Enpresa honek berrikuntza eta teknologia arloa lantzen ditu. Eta enprekin arlo hori aztertzen ari gara. Zerbait egin nahi dugu enpresetan berrikuntza teknologikoa bultzatzeko». Hori horrela, Hezkuntza eta Enplegu sailean gastuak igoko dira, formakuntza ikastaro berri horiek egongo direlako eta Bic Berrilanekeo proiektua dagoelako.

Trafikoa arintzeko, bi aldaketa

Mugikortasunari lotuta bideratuko du beste diru partida

«Bic Berrilan enpresarekin elkarlanean ari gara. Zerbait egin nahi dugu enpresetan berrikuntza teknologikoa bultzatzeko»

«Datorren urtean egingo dira Karabelgo zubia eta lezoia. Lezoia gainera urbanizazioa atzeratu egingo da, URAREN erabakiz»

«Elorrabiko zubia garrantzitsua iruditzen zaigu, gauza asko ukitzen baititu: mugikortasuna, kirola, uholdeak...»

bat Udalak. «Zenbait gunetan, sarrera irteeretan, ataskoak sortzen dira, batez ere Antziolan, eta trafikoa arindu beharra ikusten dugu. Txillida pasealekuan bi norabidetara jarriko (90.000 euro) dugu trafikoa eta Latsunben zentzuz aldatuko dugu (20.000 euro). 2011ko trafiko aldaketaren helburua zen kotxeak herrigunetik ateratzea eta oinezkoek, bizikletek... lehentasuna izatea. Filosofia horrekin bat egingo dugu eta eredu hori bultzatzen jarraitu nahi dugu, eta zenbait hobekuntza egin», azaldu du Intxauspek.

Igogailu berria eta Elorrabiko zubia

Irisgarritasunaren aldetik, igogailu berri bat egitea ere bada Udalaren asmoa, datorren urteari begira. Kiroldegitik, igerilekuen aldetik, Urbietara

kalera igoko da (470.000 euro).

Horrez gain, Elorrabiko zubia ere egin nahi dute (75.000 euro). «Elorrabiko zubia garrantzitsua iruditzen zaigu, gauza asko ukitzen baititu: mugikortasuna, kirola, uholdeak...», dio alkateak.

Bestalde, Karabelgo proiektua aurrera doa eta datorren urterako aurreikusten da zubi berria egitea (307.000 euro) eta lezoia egitea (306.000 euro). Lezoia gainera urbanizazioa atzeratu egingo da, URAREN erabakiz, eta 2015ean egingo da hori.

Obra hauen eraginez, Hirigintza eta Ingurumen sailleko partida igo egingo da aurtengo aurrekontuarekin konparatuta.

Auzoetako partida bikoiztu eta auzolanerako dirua

Auzoak edo auzo elkarteak



Gobernu Taldearen aldeko botoekin onartu ziren aurrekontuak astearteko Plenoan.

indartzeko asmoa azaldu zuen Udalak legegintzaldi hasieratik eta datorren urteari begira, zeregin horrekin jarraitzeko asmoa du. Hori horrela, diru partida hau bikoiztu egin du (106.000 euro). «Auzo elkarteak guretzat oinarri dira eta oso garrantzitsua iruditzen zaigu horietara dirua bideratzea. Auzoetan jaiak egitea, ekintzak egitea...», azaldu du Intxauspek. Eta horrez gain, auzolana bultzatzeko, beste partida bat egongo da datorren urtean (50.000 euro). «Auzolana indartzen ari da. Auzoak, gero eta proiektu gehiago egiten ari dira auzolanean: Osiñagan instalazio elektrikoak aldatu dituzte, Epelen aterpea egin dute, Martindegian auzo elkartearentzat lokala egin nahi da... Udalak proiektu horiek laguntzea oso garrantzitsua da», gaineratu du. Dirua nola banatu beraiek erabakitzen dute, parte hartze batzordean.

Presoen senideentzako diru laguntza

Partida berri bat ere izango da datorren urtean. Presoen senideentzako diru laguntza (90.000 euro). Oposizioak zabaldukoari erantzunez, alkateak argitu du, diru hori preso guztien senideentzako izango dela eta ez preso politiko senideentzako bakarrik. «Gizarte politiketarako bideratzen den diru partida bat da, egoera berezian dauden senideentzat eta Hernanin berria bada ere, herri askotan egon da eta dago diru partida hau. Eta ez Bildu agintean dagoen Udaletan bakarrik», nabarmendu du.

Gaztedia, parekidetasuna eta kultur aniztasunerako, teknikari bat gehiago
Gaztedia, parekidetasuna eta

kultur aniztasuna bultzatzea ere bada Udalaren helburua eta kasu honetan, diru partida igotzeaz gain, giza baliabideak igoko ditu. «Hau da teknikari bat zegoen lehen eta orain beste bat jarriko dugu jornada erdiz», azaldu du Intxauspek. Hori horrela, Politika sozialen arloan, 100.000 euroko igoera izango da.

Kirol foroetako eskaerei erantzunez

Kirol foroetan atera diren proposamenak aurrera eramateko ere partida bat aurreikusi du Udalak (95.000 euro eta 200.000 euro). «Gure filosofiari erantzunez da, hau da, parte hartze prozesu bat bultzatu dugu eta bertatik atera diren eskaerei erantzutea beharrezko ikusten dugu».

Beste zenbait sailletara ere diru gehiago bideratuko da; hala nola, Euskarara (82.000 euro gehiago). Turismoa indartzeko ere, diru partida haunditu dute.

Zorpetze maila txikia

Zenbait gastu gutxitu egingo direla aurreikusi dute. Esaterako, uraren kontsumoarekin lotuta. Errebisioak egin dituzte, ur galerak detektatu...

Maileguetan ere jaitsiera egongo da. «Aldundiari Fondo Foraletik itzuli behar zitzaion kopurua bueltatu da eta Hernanik zeukan mailegu bat ordaindu da dagoeneko. Hernani, bere mailako herrien artean, zorpetze gutxi netakoa daukan herria da. %8a da zorpetze maila eta %56an dago muga», dio Minerrek.

Lehenbailehen egiteko, 3 obra zain

Aurtengo, hau da, 2013ko aurrekontuetan bildutako hiru proiektu egin gabe gera-

«Auzo elkarteak guretzat oinarri dira eta oso garrantzitsua iruditzen zaigu horietara dirua bideratzea. Auzoetan jaiak egitea, ekintzak antolatzea...»

«Partida hori, preso guztien senideentzako izango da; ez preso politiko senideentzako bakarrik. Gizarte politiketara bideratzen den diru partida bat da, egoera berezian dauden senideentzat»

tuko dira eta lehenbailehen egiteko asmoa du Udalak: Kanpoko igerilekuetako taberna, Arantzazu plazan parkina eta Paradoreko apartakalekua egokitzea.

Oposizioa, aurka

2014ko aurrekontuen proposamena astearteko Plenoan onartu zen Gobernu Taldearen aldeko botoekin. Oposizioa hiru alderdiek (PSE-EE, EAJ-PNV eta H1!) kontra bozkatu zuten.

Estefania Morcillo PSE-EEko bozeramaileak azaldu zuen transparentzia gutxiko aurrekontuak zirela eta partidistak. Trafiko aldaketarekin ez zeudela ados azaldu zuten, 2011ko aldaketa porrot bat izan dela, eta Txillidako aldaketa ez dela soluzioa izango. «Azterketa sakon bat egin behar da», azpimarratu zuten. Horrez gain, Gobernu Taldearen konfiantzazko langileengana jo beharrean, udaleko langileekin gastuak gutxitu litezkeela azaldu zuen eta inbertsioetarako diru

gutxi biltzen dela. Bestalde, aurrekontuan Atez Atekorako azaltzen den diru partidarekin ere ez dago konforme. «Diru asko gastatzen ari gara. 1.583.000 euro kostako da Atez Atekoa; eta horri gehitu behar zaio San Markosi ordaindu behar zaizkion 235.000 euroak. Lehen milioi erdira ez ginen iristen».

Minerrek erantzun zion ez direla datu zuzenak ematen ari, eta hori badakitela: «Bilketa honek dituen gastuak bakarrik aipatzen dituzue, baina sistema honekin diru sarrerak ere badira. Gainera, San Markosi ordaindu beharrekoa sartzen duzue eta hondakinen tratamendu kostea, baina 2009ko sistemaren datuak ematerakoan, ez dituzue kontuan hartzen».

Sozialistek osoko zuzenketak aurkeztu dute eta baita EAJ-PNVk ere. EAJren esanetan,

aurrekontuak puztuta daude. «Fondo Foralaren aportazioa %7,4 igotzea aurreikusten da; 2013an ere, %7,74 igotzea aurreikusten zen eta %2,20 jaitsiko da. Diru sarreren kapituluarela izatea eskatzen dugu». Eta gaineratu dute: «Presoen familientzat 90.000 euro aurreikusten dira eta gehiegizkoa dela uste dugu, garraio publikorako, haur eskolarako edo berdintasunerako baino diru partida haundiagoa baita. Egokitzea eskatzen dugu». Azken ideia honekin ere bat datoz sozialistak. Atez Atekorako bideratzen den diruarekin ere ez daude ados jeltzaleak.

Jendaurrean ikusgai

Orain, aurrekontuak jendaurrean daude ikusgai. Asteartetik, 15 laneguneko epea dago aurrekontuak aztertzeko eta erreklamazioak egiteko. ■

2014ko Udal aurrekontuak -Datu batzuk-

● Aurrekontu osoa: 30.813.312
Udala+Ongintza+Ereñotzu:25.202.691+7.804.773+349.108

UDALARI BAKARRIK DAGOZKION GASTUAK:

● Pertsonala:8.107.074
● Ondasun arrunt eta zerbitzuak:10.088.900
● Finantza gastuak:26.600
● Transferentzia arruntak:4.106.046
● Inbertsio errealak:2.335.265
● Kapital transferentziak:98.705
● Finantza aktiboak:100
● Finantza pasiboak:440.000

PROIEKTUAK:

-Buruntzaldeko entitate juridikoa: 120.000 euro
-Txillida bi norabidetan jarri: 90.000 euro
-Latsunbe zentzuz aldatu: 20.000 euro
-Ilgogailua: 470.000 euro
-Elorrabiko zubia: 75.000 euro
-Karabelgo zubia: 307.000 euro
-Karabelgo lezoia: 306.000 euro
-Auzo elkarteak: 106.000 euro + 50.000 euro (auzolana)
-Presoen senideentzat: 90.000 euro
-Kirol foroetako proposamenetarako: 95.000 eta 200.000 euro



VRAC taldea bigarrena da sailkapenean, Independienterekin berdinduta.



Maialen Aranegi da selekzioak deitutako jokalarietako bat.

Hernaniko lau jokalaria, selekzioarekin entrenatzera deituta

Castrejana, Aranegui,
Perez eta Rodriguez
izan dira deitua,
selekzioarekin
entrenatzera.

HERNANIKO errugbi jokalariai goi mailan ari dira, egunetik egunera, joko eta teknika hoberekin. Egindako lanaren ordaina jasotzen ari dira orain. Azken hilabeteetan Emakumezkoen selekzioaren entrenamenduak ari dira izaten, eta gaur dute hurrengo saioa. Bertan izango dira, Hernaniko lau jokalaria: Amets Castrejana, Maialen Aranegui, Anabel Perez eta Leire Rodriguez.

Selekzioa, Txapelketa Autonomikoa prestatzen
Euskadiko selekzioa Txapelketa autonomikoa ari da prestatzen buru belarri, eta horren harira, azken asteetako entrenamenduak. Gaurkoa Arrasateko Mojategi zelaietan izango da, goizeko 10:00etatik 13:00-etara. Saioa, Andoni Samperiok zuzenduko du. Entrenamendu honetan, estreinekoak, Nafarroako jokalariek hartuko dute parte. ||

Hernanik hortzak erakutsiko dizkio gaur VRAC indartsuari

Landaren jokatu da partidua, gaur, 16:00etan hasita. Zaleei Landarera jaisteko deia egin diete klubetik, gaur inoiz baino gehiago beharko baitu Hernanik babesa.

IAZKO txapeldunak, VRAC haundiak, bisitatuko du gaur Hernani, Landaren. Maila ikaragarrian ari dira jokatzen gaztelarrak eta bigarren postuan dagoaz momentuz, Independiente liderrekin berdinduta. Bigarren itzuliari hasiera emango dio gaur Hernanik, eta garaipeña lortzea besterik ez dute helburu. 16:00etatik aurrera jokatu da, Landaren.

Porrotei buelta emateko gogoz

Aurrean talde gogorra izango du gaur Hernanik, baina horrek ez dio dena emateko ausardia eta gogoak kenduko. Azken lau partiduetan izandako joera ezkorari buelta emateko premia dute hiru-koloreek. Ez dute lan erraza, baina klubetik azaldu duten moduan, ez da ezinezkoa izango. Pepe Rojo zelaian,

VRACen zelaian jokatutako partiduan, Hernanik zuen guztia eman eta partidu ikaragarria jokatu zuen. Garaipenak ihes egin zien orduan. Gaur talde bera zeilairatuko da, Landaren.

VRAC taldearen kontra jokatutako partiduan, hortzak erakutsi zizkion Hernanik, eta gaurkoan, talde bera zelaieratu dute Landaren.

VRAC: ondo egituratutako taldea

Ligako talde indartsuenetakoa da VRAC gaztelarra. Ondo egituratutako taldea da, eta hori da, guztiaren klabeetako bat. Jokoa ere, ikusgarria dute.

Aurreko lerroetan, aipatzeak: hirugarren lerroan,

Gavidi eta Newton; bigarren lerroan, Molina; eta aurrenekoan, Barnes. Lehenengo lerro hori indartzeko gainera, Zeelanda Berritik Scott Vessey harroina fitxatu dute, orain arte Northland taldean aritutakoa. Maila ikaragarria hortaz, aurreko lerroetan.

Eta atzeko lerroei dago kienean, zer esanik ez: Griffiths, Muller anaiak, Sergio Fernandez edo Perico Martin haundiak, esaterako. Ligako azkarrenak izango dira ziurrenik, eta baloia gu-

txik bezala mugitzen dute

Azken partiduetan ez du nahi besteko maila eman VRAC taldeak, eta horrek galduarazi die inork gutxik zalantzan jartzen zuen lidertza. Valladolideko derbia galdu eta gero, nekez irabazi zuten Sevillan, joan den astean. Bigarren itzulia beste jarrera batekin hasteko asmoz iritsi dira gaur Hernanira eta horrek are aurkari arriskutsuagoa egingo du.

Landarera jaisteko deia

Gaurkoan irabazten duenak irabazita, espektakulua ziurtatu izango da Landaren. Santo Tomas eguna izaki, klubetik diote, ez dela egunik aproposena Landarera jaisteko. Hori horrela, deialdi berezia egin diete zaleei, Hernanik behar duen bultzada ematera inguratzeko. ||

SASKIBALOIA

Gazteentzako teknifikazio saioak, Gabonen bueltan

Datorren asteazken eta ostegunean dira, bi txandatan banatuta. Hilaren 28an izarren arteko partidua antolatu dute.

SASKIBALOIAN aritu eta teknika hartzeko aukera jarri dute datorren astean, Gabonetako oporrak aprobetxatuta. Asteazkenean eta ostegunean izango dira, bi txandatan banatuta:

Hasteko, 09:30etatik 11:00-etara, bosgarren eta seigarren mailako ikasleek, eta infantil mutilek (DBH 1-2) izango dute aukera. Eta ondoren, DBH 1 eta 4garren maila bitarteko neskek, 10:45etatik 12:15etara.

Izarren arteko partidua, datorren larunbatean

Eta urtea bukatzeko, partidua berezia antolatu nahi izan dute, beraiek dioten moduan, izarren artekoa. Batetik, jokalaririk ohiak; bestetik, senior taldea. Datorren larunbatean jokatuko da, Kiroldegian, arratsaldeko 18:00etan hasita. Espektakulua, ziurtatuta. ||



Jokalaririk ohiak eta senior taldeak jokatuko dute, datorren larunbatean.

ESKU PELOTA

Gipuzkoako txapelketako finala gaur, hernaniarrek

Behar Zanaren kontra dute finala. Atzean Esnaolak jokatuko du, eta aurrean Oiaga edo Murgiondok.

GIPUZKOAKO Txapelketako finala dute gaur Hernaniko bi pelotarik: atzean Eñaut Esnaolak jokatuko du; eta aurreko koadroetan, azken momentura arte ezin jakin Oiagak edo Murgiondok jokatuko duen. Behar Zanako Lizaso eta Erreka izango dituzte aurkari.

Finala Arrasateko pelotalekuan jokatuko da, 10:30etan.

Pelotari hernaniarrek sailkapeneko partidua guztiak irabazi dituzte; eta azken fasean, mailaz igotzea eta finalera sartzea lortu dute. Partidua zaila dute aurretik, eta 100% eman beharko dute irabazteko. ||

◆ FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA:

Aurrerari irabazi eta erdiko postuetara hurbiltzeko aukera, gaur

Garaipenaren bideari heldu dio Hernanik azken partiduetan, eta bolarik horrekin jarraitzeko gogoz ekingo dio gaurko neurketari. Talde indartsua, gogorra izango dute gaur aurrean: Aurrera. Hirugarren dijoaz sailkapenean eta etxeko partiduetan amore ematen ez duen horietakoa da gaurko aurkaria. Partidua Zaldupe zelaian, arratsaldeko 16:30etan hasita. ||

◆ ESKUBALDIA

Ate irekietako jardunaldia, bihar

Eskubaloi tadea lanean ari da, herriko neska-mutilek kirol hau gertutik ezagutu eta probatu dezaten. Bihar ate irekien jardunaldia izango da 11:30etan hasita, oraingo honetan ere, gonbidatu oso bereziki: David Rodriguez, Julian Eskide eta Carlos Gude; azken hau Asobaleko epaile internazionala. Azken orduko inkorporazio bat ere izan dute. Biharko saioan izango da baita ere, Nely Carla Alberto; donostiarra da jaiotzez, baina Frantziako Fleury taldean jokatzen du egun; 2012ko Londreseko olinpiadetan brontzezko domina irabazita-koa da, besteak beste. ||

◆ ATLETISMOA

Yohanes Merinok urrea eta Julen Goikoetxeak zilarra, Azpeitian

Gipuzkoako kros txapelketa jokatzen joan den asteburuan Azpeitian eta bertan izan ziren Hernaniko 18 atleta. Yohanes Merino izan zen azkarrena kadete mailan; eta infantiletan, hirugarren postuan helmugaratu zen Julen Goikoetea. ||



KIROLA - ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA

Mut. Erreg. Oh.	Auzoa-Hernani	Zaldupe	Gaur 16:30
Mut. Erreg. Gor.	Hernani-Behobia	Zubipen	Gaur 15:30
Jab. Mut. Eu.	Zaramaga-Hernani	Zaramaga	Gaur 15:30
Jab. Mut. Oh.	Oierizan-Hernani	K. Lekeozan	Gaur 10:30
Kad. Mut. Oh.	Hernani-Vasconia	Zubipen	Gaur 10:45
Kad. Mut. I.	Umieta-Hernani	Umieta	Gaur 10:30
Infantil biki	Algora-Hernani	Rozalen	Bihar 10:00
Inf. Mut. Oh.	Aizkorri Golemi-Hernani	Aizkorri	Gaur 11:00
Inf. Mut. I.	Hernani-Martutene	Zubipen	Gaur 12:15
Inf. F-8	Hernani-Oicoko	Zubipen	Gaur 09:00
Wb.	Hernani-Hernani	Hernani	Bihar 10:45
Wb. Zuzen	Hernani-Antiguoko	Zubipen	Bihar 19:00
Wb. Ligo artea	Hernani-Dunboa Eguzki	Zubipen	Bihar

ESKU PELOTA - 4/Seko Torneo

Seniorak	Jon Ebegolez/Josu Altuna	Hernani	Bihar 10:00 (3)
Seniorak	Eneko Aizpitarte/Unjo Urkizu	Hernani	Bihar 10:00 (4)
Kadetesak	Endika Arizmendi/Soritz Berasarte	Hernani	Bihar 10:00 (2)
Kadetesak	Xabier Pagola/Alejo Aguirre	Hernani	Bihar 10:00 (1)

ESKU PELOTA - Gipuzkoako Txapelketa

Seniorak	Esnaola-Oiaga/Lizaso-Ereka	Arrasate	Gaur 10:30
----------	----------------------------	----------	------------

ERREMONTA

1go partidua	Otaegi-Saldias/Ezkuma II-Labaka	Galareta	Gaur 16:00 (1)
2. partidua	Umieta-Oizari/Kuaristi-Etxeberria III	Galareta	Gaur 16:00 (2)
3. partidua	Ezkuma-Erdika/Etxeberria IV-Ion	Galareta	Gaur 16:00 (3)
4. partidua	Jaanena-Zubiri/Etxabe II-Larralaga	Galareta	Gaur 16:00 (4)

ERRUGBIA

Mut. Ohor. Maila	Hernani-VIAC	Landaren	Gaur 16:00
Mut. Eskal. Liga	Amatiko zekornak-Taiparta	Agones	
Mut. Eskal. Liga	Landare-Ordizia	Landaren	Gaur 12:30
Kad. (sub16)	Hernani-Aletiko SS	Landaren	Gaur 11:15
Infantil (sub14)	Hernani-Aletiko SS	Landaren	Gaur 10:00

Napar Pala Txapelketa

1go maila	Ezagire-Huza/Pagola-Againe	Lekuaberrin	Bihar 11:30
2go maila	Azpeitia-Mendizabal/Araizegi-Antsores	Lekuaberrin	Bihar 11:30
3go maila	Azpeitia-Antsores/Antsores-Mendiola	Lekuaberrin	Bihar 11:30

**FUNERARIA
ORBEGOZO**
ERRAUSKETAK

24 orduko tfnoa.
943 33 10 20



- Zerbitzu partikularrak eta aseguro etxeekin.
- Beilatokiak.
- Errausketak.
- Lekualdatzeak.
- Eskelak, koroak ...

Zentrala **HERNANI**
Latsunbe, 7

www.funerariaorbegozo.com

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · ORIO · LASARTE · ERRENTERIA

TELEFONAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 092 ● **DYA**: 943 464622
 ● **Autobusak**: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 ● **Anbulatorioa**: 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalaritza anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103
 ● **FARMAZIAK** ● Egunez: **Castilla** Urbieta 7 - 943 552941 ● Gaur: **Aldabe** Perkaiztegi 8 (Antziola) - 943 336022

EGURALDIA ● **GAUR** Goxatu egingo du gaur, eguzkia eta hego-haizea elkartuko baitira. Goizean behe-lainoa, baina azkar altxako du, eta eguzkia nagusi. Min.2° / Max.15°
 ● **BIHAR** Eguraldia berdintsu bihar ere, baina laino gehixeagorekin. Euri arriskurik ez da izango eta hegoak berdin mantenduko ditu tenperaturak. Min.3° / Max.14° (euskaime)



GABONETAKO KONTZERTUAK

Ozenki eta Musika Bandaren emanaldia gaur, txistulariena bihar

Gaurko kontzertua 20:00etan izango da Milagrosan eta biharkoa 13:00etan, leku berean. Ainara Ortega abeslaria ere izango da gaur.

GABONETAKO kontzertuen barruan, bi emanaldi izango dira asteburu honetan. Gaur bertan, Ozenki abesbatzak eta Musika Bandak elkarrekin eskainiko dute emanaldia. Iluntzeko 20:00etan izango da Milagrosan.

Ainara Ortega aktore eta abeslari hernaniarraren laguntza ere izango dute. Gabon kanta herrikoiak abes-teaz gain, gospel abestiak ere eskainiko dituzte. Denera 17 bat abesti interpretatuko dituzte.



Ozenki abesbatzako kideak Musika Bandarekin ariko dira gaur.

8 pieza, txistu eta biolin doinuetan

Urtero bezala, Txistulari Bandak ere kontzertua eman-go du bihar, Gabonen bueltan. Oraingo honetan, bi biolinjole izango ditu lagun. Denera, 8 pieza joko dituzte Patxi Apeztearearen zuzendaritzapean. Kontzertua 13:00etan izango da Milagrosan. ||

GAURKO KONTZERTUA

Ozenki abesbatza:
 - Aintzinako hiru doinuko
 - Hator hator
 - Elurra mara mara
 Hernaniko Musika Banda:
 Bakarlarria: Ainara Ortega
 - Santa Claus is coming
 - The christmas waltz
 - Let it snow
 Abesbatza eta banda:
 - Somewhere in my memory
 - Birjina maite

- Gospel train
 - A festive christmas celebration

BIHARKO KONTZERTUA

1. Bendaña
2. Otsango
3. Barandio
4. Gau erdian
5. Din, dan, don
6. a) Noche de paz
 b) Gabaren zoragarrian
7. Ana Mari
8. Zorionak

ZINEA



'Malavita', familia mafioso bat bizimodua ezin aldaturik...

Malavita pelikula jarriko dute Biterin gaur (19:30 eta 22:30) eta bihar (19:30). Oso ezaguna den Amerikako familia mafioso bat Normandiara joango da bizitzera, FBIren testiguen babes programa baten bidez. Bizimodu berrira egokitzeko, ahaleginak egin arren, segituan behartuta ikusiko dute euren burua, metodo zaharretara jo-tzeko, euren arazoak konpondu nahi badituzte behintzat. Tonino Benacquistaren *Badfellas* nobelaren moldaketa bat da. ||

'Abuelos al poder', bilobak hezitzeko

Gaztetxoentzako pelikula ere izango da asteburuan (16:30) Biterin. *Abuelos al poder* izango da ikusgai. Bere alabak lan egiten duenez, aitona bat bere hiru biloben zaintzaz arduratuko da. Arazoa da XXI mendeko metodoak erabali behar dituela gaztetxo horiek zaintzeko eta bera ez dago batere ados. Azkenean bere modura zaintzea erabakiko du. ||



IRAGARKI MERKEAK

Garaje itxia alokagai, haundia (40 m2), Txirrita kalean. Deitu: 943 55 13 02

Etxe unifamiliarra salgai, 160 m2+250 m2 lorategi + 90 m2 terraza, trastelekua, txokoa, garajea, 2 solairu. Deitu: 699 49 22 35 (partikularra)

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, aurikuloterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

cenor BALANTXA
ELEKTROGAILUAK
 Behar dituzun elektrogailu guztiak ditugu!!
NAGUSIA,17
 ☎ 943 33 40 22

Ez joan urrutira!
 Prezio onak eta aukera handia hemen gertu.

GAUR LARUNBATA
ARRATSALDEZ
IREKITA!

